

Euskara juridikoaren bilakaera, *Uztaro* lekuko

Aitor Bengoetxea Alkorta
UEUko Zuzenbideko sailburu ohia, *Uztaroren* Erredakzio Kontseiluko kidea

Euskara juridikoaren tradizio eza

Euskal Herrian euskarak historikoki nozitu duen atzerapen eta bigarren mailan egotearen arrazoi nagusien artean, tradizionalki euskara mundu juridiko eta Administrazio publikotik kanpo geratu izana dago.

Euskal Herrian eduki dugun Zuzenbidea hasiera batean latinez mintzo zen, ondoren, gaztelaniaz eta frantsesez. Asko kostatu zaio euskara juridikoari bere bidea egitea.

Alde batetik, Euskal Herritik kanpo sortu eta bertan aplikaturiko Zuzenbidea izan dugu eta dugu, Madril eta Pariseko botere zentraletatik. Baina, bertan sorturiko euskal Zuzenbide propioan ere, Zuzenbide forala batik bat, euskararen presentzia hutsaren hurrengoa izan da.

Ez dago euskara juridiko tradizionalik, soilik, beren garrantzia gutxietsi gabe, anekdotikoak diren kasu bakanak, besteak beste, Uztaritzeko Biltzarren aktaren bat; aldundien dekreturen bat; udal-ordenantzaren bat; epairen bat; notario-aktaren bat; edota testamenturen bat¹.

Euskara juridiko ofizialaren bidean, lehen urratsak XX. mendeko 30eko hamarkadaren garaian aurki ditzakegu, gerra zibilaren aurreko testuinguruan: *Euskalerrientzako Sortarau-asmoa* (1932)² eta *Euzkadi'ren Berjabetasun Araudia* (1936)³.

Gerra zibilaren ondoren euskara juridikoak pairatutako lehortearen testuinguruan, azpimarratu behar dira *Euzko Gogoa* eta *Jakin* aldizkarietan euskaraz argitaratu ziren artikulu juridikoak.

1. Gorostiaga, K. / Kortabitarte, K., *Zuzenbidea 1 Hiztegia*, UZEI, 1987, 13.-14. or.

2. Hego Euskal Herri osoa aintzat hartuz, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, eta Nafarroa barneratzen zituen estatutu-egitasmoa, indarrean inoiz sartu ez zena.

3. Araba, Bizkaia, eta Gipuzkoako lurraldeentzat onarturiko Estatutua.

Ezbairik gabe, ofizialtasunaren bidean, inflexio-puntua Euskal Autonomia Erkidegoko 1979ko Estatutuan dugu, haren 6. artikuluan, Araba, Bizkaia, eta Gipuzkoan aplikagarri, euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen denean, gaztelaniarekin batera. Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Aldizkari Ofiziala elebiduna da, 1980az geroztik.

Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, 1982ko Estatutuak euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen du Nafarroako eskualde euskaldunetan (9. art.). Hori dela-eta, Nafarroako Buletin Ofiziala elebiduna da.

Ipar Euskal Herrian, gaur egun, euskarak ez du inolako aitorten juridiko ofizialik. Frantziako Estatuko Konstituzioak ezarri du hizkuntza ofiziala frantsesa dela, Errepublika osoan (2. art.).

Beraz, EAE eta Nafarroa Garaiko Aldizkari Ofizialak elebidunak izanik, ezin dugu jarraitu esaten euskara ez dela agertzen hizkera juridiko ofizialean. Baina kontuan hartuta tradizio hori XX. mendeko 80ko hamarkadan hasiberria dela.

1990. urteko testuingurua

Urrun gelditu zaigu *Uztaro* aldizkariaren 0 zenbakiaren jaiotza ikusi zuen 1990. urtea. Garai hartan, unibertsitateko ikasketa juridikoetan euskararen presentzia zein zen ikusteko, komeni da gogoratzea oraindik sortu gabe zegoela Mondragon Unibertsitatea (1997an sortua), eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu berria zela (1987an).

Hortaz, XX. mendeko azken hamarkada horretan, Zuzenbidearen arloan euskarazko ikasketa eta ikerketa Euskal Herriko Unibertsitatean eta, maila apalago batean, Deustuko Unibertsitatean kontzentratzen zen. EHUko Zuzenbideko lizentziaturan, 5 ikasturtetan lantzen ziren 25 ikasgaietatik, esku bakarreko hatzekin nahikoa zen euskaraz ikasteko aukera zegoen asignaturak zenbatzeko, kasu askotan, asignaturaren zati bat soilik. Hainbatetan, euskaraz ikasi ahal izateko lehen urratsak irakasle batzuek emanak ziren, modu boluntarioan.

Halaber, euskara juridikoko saioak zeuden EHUko Zuzenbide Fakultatean, ikasle euskaldunei zuzenduta, Fernando Mendizabal aritzen zelarik irakasle.

Ikasle euskaldunen artean, gogoan dut Fakultatean komentatzen zen eta oso esanguratsua zirudien anekdota potolo bat. 1978ko Espainiako Konstituzioaren harira, argitaratu zen euskarazko bertsioan bazirudien xedapen derogatzaileak Konstituzioa bera derogatzen zuela. Zuzenbide arloko euskararen zenbat zegoen egiteko ohar gintezen.

Begien aurrean zegoen erronkaren tamaina. Oinarrizko gabezia nabarmena zen. Non eta Konstituzioan, Konstituzioa Zuzenbide konparatuan arau nagusia izanik, euskarazko Zuzenbidea ez zen ulertzen. Gerorako utzi beharko terminologia bateratze, estilo-liburu eta abarrekoak. Lehen erronka, noski, euskaraz idatzitako Zuzenbidea ulergarria izatea, jurista zirenentzat nahiz jurista ez zirenentzat.

Anekdota horrek, berez oso deigarria eta harrigarria izateaz gain, agerian uzten zuen euskararen presentzia eta prestigio eskasa Zuzenbidearen unibertsoan. Gerora, azkarragoa izan da presentziaren handitzea, prestigioarena baino.

Izan ere, Zuzenbidea euskaraz eraikitzeko arlo asko landu beharra zegoen, besteak beste, terminologiaren alorra. Baina seguru aski giltzarria prestigioan zegoen. Zuzenbideko ikasketa unibertsitarioetan, ikasle euskaldun askok gaztelaniazko eskaintza hautatzen zuten, euskarazkoa kontzienteki alboratuz, nahiz eta euskaldun osoak izan eta komunikazio arrunta hizkuntza horretan garatu. Euskara juridikoa garatzeko harrobia izan zitezkeen askok beste hautu bat egiteak potentzialitate hori nabarmen ahultzen zuen.

Hizkera juridikoa hizkuntza arruntetik bereizteko ahaleginaren atzean, ulergarri eta txalogarria den segurtasun juridikoaz gain, batzutan nahita Zuzenbidea herri xehetik aldentzeko saioa egon da.

Euskal Herriko esparruan, gaztelaniaz eta frantsesez landutako Zuzenbidea ulermen estandar arruntetatik urruti egon bada ere, are gehiago euskarazko Zuzenbidearen kasuan.

Euskaraz landutako Zuzenbideak erronka bikoitza, hortaz. Alde batetik, egiteke dagoen eraikina sortzea. Bestalde, eraikin hori gizartean, gizarte euskaldunean, txertatu eta ulergarri izan dadila lortzea.

Ikerketa eta argitalpenei dagokienez, garai hartan, egoera ahula zen. Mugarri gisa, merezi du azpimarratzea, sorkuntza-lan aitzindariak izan zirelako, UZEIk argitaraturiko hiztegien bildumaren baitan, Zuzenbideari buruzko bi tomoak (1987).

Egoeraren isla gisa, esan behar da artikulugile guztiak ez zirela euskaldunak, beraz, artikulua batzuk zuzenean euskaraz idatzi zituzten egileek, baina, hainbat kasutan, artikulua euskaratu ziren. *Zuzenbidea 1* alean, atarikoak deiturikoa, Zuzenbideko atal klasikoen artikulua bana landu zen⁴.

1990. urtean, *Uztaroren 0* zenbakia izan zen horretan, Iñigo Lamarkaren «Konstituzioaren kontzeptua, sorrera eta bilakaera» artikulua juridikoa argitaratu zen.

Ondorengo bilakaera

1990etik igaro diren 27 urteotan euskara juridikoaren egoera nabarmen hobetu da, arlo desberdinetan.

4. Bertan, ondoko atalak landu ziren: Zuzenbidearen izaera eta iturriak (Koldo Gorostiaga/Antton Eloseggi/Xabier Elias); Zuzenbidearen Filosofia (Antton Idiakez); Zuzenbidearen historia (José Luis Orella); Merkatal Zuzenbidea (Koldo Kortabitarte); Zuzenbide Zibila (José Javier Hualde); Lan-Zuzenbidea (Antton Ibarburen/Koldo Gorostiaga); Gizarte-Segurantz (Koldo Gorostiaga); Nazioarteko Zuzenbidea (José Antonio Obieta/Andres Urrutia); Finantz-Zuzenbidea (Marco Antonio Rodrigo); Zuzenbide Penal (José Luis de la Cuesta/Beatriz Casares); Zuzenbide Politikoa (Gurutz Jauregi); Administrazio Zuzenbidea (Edorta Cobreros); Zuzenbide Prozesala (Koldo Kortabitarte). Atal klasikoetatik aldenduz, azken artikulua batek Euskal Zuzenbidea jorratzen zuen (Andres Urrutia).

Zuzenbideko Graduako Ikasketetan, EHU-n Graduak asignatura guztiak euskaraz ikas daitezke. Deustoko Unibertsitatean, guztiak ez baina asignaturen gehiengo zabala euskaraz ikas daiteke. Nafarroako Unibertsitate Publikoan, asignatura gutxi batzuk eskainiak dira euskaraz. Mondragon Unibertsitatean, Zuzenbideko Gradua ez egon arren, beste gradu batzuetan Zuzenbideko asignaturak euskaraz ikasteko aukera dago. Gainera, euskara juridikoa bereziki lantzeko eskaintzak daude.

Aipaturiko egoerak, noski, ahalbidetzen du euskal unibertsitate desberdinetako graduatuak euskara juridikoan trebatuak egotea.

Ikerketaren esparruan ere aurrerapena oso nabarmena izan da, eta izaten ari da, azken urteotan. Liburugintzari dagokionez, hobekuntza nabarmena, besteak beste, UEUren Inguma datu-basea aztertuz ikus daiteke.

Aipamen berezia merezi du legeen itzulpenetan egin den lanak. Alde batetik, EHU eta Eusko Jaurlaritzaren artean ekoizitako Legeak/Leyes bildumak uzta oparoa eman du. Une honetan 19 liburu daude argitaratuta, eta Interneten eskuragarri, testu osoak⁵. Horrekin batera, Deustoko Unibertsitatearen eta Eusko Jaurlaritzaren artean argitaraturiko Lege-testuak / Textos legales bilduma. Une honetan bilduma horretako 14 obra daude argitaratuta⁶.

Aldizkariaren esparruan, bada zehazki Zuzenbidean espezialiatua dagoen, eta euskara hutsez diharduen aldizkaria: *Eleria*. Eusko Ikaskuntzak argitaratzen du, 1996an abiatu zen, 0 zenbakiarekin, eta dagoeneko 24 zenbaki argitaratu ditu, azkena 2013an.

Uztarok Zuzenbideko hainbat artikulu argitaratu ditu, besarkatzen duen Giza eta Gizarte-zientzien diziplinartekotasunaren barruan. 0 zenbakian lehen artikulu juridikoa argitaratu ondoren (1990), gerora, Zuzenbide arloko beste 27 artikulu argitaratu dira *Uztaron*, webgunean ikus daitezkeen moduan. Askotariko gaiak landu dira. Uzta emankorra⁷.

5. Espainiako Konstituzioa; Lan Arloko Prozeduraren Legea; Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea; Konstituzio Auzitegiari Buruzko Lege Organikoa; Kontsumoari buruzko Legeak; Botere Judizialaren Lege Organikoa (V. eta VI. liburuak); Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra; Jabetza Intelektualari buruzko Legea; Enpleguari buruzko Legea; Lurzoruari buruzko Legea; Kontsumitzaile eta erabiltzaileei buruzko legeria; Kontsumitzaile eta erabiltzaileei buruzko legeria; Jabetza industrial. Markei buruzko legeria; Lan-eremuko hainbat lege; Lehiari buruzko Legeria; Gizarte arloko jurisdikzioan erabiltzen diren hainbat eredu; Botere Judizialaren Lege Organikoa; Genetika eta Biomedikuntzari buruzko hainbat lege; Kapital-sozietateei buruzko legeria; eta Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa.

6. Zigor Kodea; Kode Zibila; Merkataritzako legeria; Merkataritzako sozietateen legeria; Lege zibilak: ondasun higiezinak; Zuzenbide politikoaren legeria; Prozedura Kriminalaren Legea; Lan-zuzenbideko legeria; Konkurtso-legeria; Foru-lege zibilak; Hipoteka Legeria; Erregistro Zibilaren Legea eta Erregelamendua; Prozedura Zibilaren Legea; Adingabeen Legea.

7. Zuzenbideko gai askori buruzko gogoetak ikus ditzakegu *Uztaro* aldizkariaren orrialdeetan. Justizia trantsizionala; hondakinen kudeaketa; autodeterminazio-eskubidea; foru-zuzenbide zibila; lana-kapitala nahasketa; emakumeen diskriminazioa soldatan; atzerritarren eskubideak; edota informatika juridikoa, beste askoren artean.

Erronkak

Abiapuntu gisa *Uztaro* jaio zen 1990. urtea hartuta, argi dago euskara juridikoaren arloan asko aurreratu dela. Baina, kontuz, euskara juridikoaren aldeko bidean, autokonplazentzia oso bidelagun okerra izango litzateke.

Gorago aipaturiko prestigioaren giltzarriak, gaur egun ere, errealitate gordinaren aurrean kokatzen gaitu. Oraindik ere, badira, Zuzenbideko ikasketetan, euskaldun petoak izanik Zuzenbidea gaztelaniaz ikastea hautatzen dutenak. Beren etorkizun profesionalaren onerako izango delakoan.

Seguru aski, prestigiodun eta oihartzun zabala duten jurista euskaldunek Zuzenbidea euskaraz erabiltzea euskara juridikoa prestigiatzeko tresna oso eraginkorra izango litzateke.

Globalki aztertuz gero, oraindik ere Euskal Herriko Zuzenbide Fakultateetan gaztelania da nagusi, ezbairik gabe⁸. Irakaskuntza mailan gertatu da aurrerapen nabarmenena, gorago aipatu den moduan, bereziki EHUⁿ Zuzenbideko Gradu osoa euskaraz ikas baitaiteke. Masterretan, ordea, euskararen egoera askoz ere kaxkarragoa da. Are gehiago doktoretza-mailan, euskaraz egindako tesiak egonik ere. Ikerketaren esparruan oraindik ere gaztelania da nagusi.

Judikaturaren alorrean, euskara gutxi entzun eta irakur daiteke, EAEn euskara hizkuntza ofiziala izan arren. Atal honetan, azpimarratu beharra dago Abokatu Euskaldunen Sindikatuaren inguruan (1997an sortua) hainbat legelari euskaldunek erakutsitako kemena. Abokatu, epaile, magistratu eta fiskal euskaldunen kopurua gora joan arren, euskararen presentzia ez da maila berean igotzen ari.

Administrazio publikoaren esparruan asko hobetu da euskara juridikoaren egoera. Hainbat udaletan euskaraz funtzionatzen da normaltasun osoz, eta egintza formalak, aktak eta bestelakoak, sarritan euskara hutsez egiten dira.

Ikerketa unibertsitarioari dagokionez, euskararen normalizazio-prozesua, gorago esan den moduan, poliiki doa, motelegi. *Uztaro* aldizkaria neurgailu gisa erabiltzen badugu, ikus dezakegu, denbora aurrera joan ahala, Zuzenbideko artikuluen kopurua konstante mantentzen dela⁹.

8. Ipar Euskal Herrian ez dago Zuzenbide Fakultaterik. Ipar Euskal Herria barneratzen duen Pabeko eta Adourreko Herrialdeetako Unibertsitateak duen Zuzenbide, Ekonomia eta Kudeaketaren Fakultatea Paben baitago.

9. Ikus dezagun *Uztaron* argitaratu diren Zuzenbideko artikuluen bilakaera. Gorabehera batzuk egonda ere, ikus daitekeen moduan, batez beste, urtero, Zuzenbideko artikulua bat argitaratu ohi da. 1990an Zuzenbideko artikulua bat; 1991n, bat; 1992an, hiru; 1993an, bi; 1994an, hiru; 1995ean, bi; 1996an, bat; 1997an, bi; 1998an, bi; 1999an, bat; 2001ean, bat; 2006an, bi; 2008an, bat; 2009an, bat; 2010ean, bat; 2012an, bat; 2014an, bat; 2015ean, bi.

Kontuan hartu behar da azken aldian indexazio-sistemak ezarri duen tirania, edukiontzia zein den edukiaren balioaren gainera, egiazatu beharreko ebaluazio-sistemak egonda ere. Izan ere, *Uztaro* aldizkaria, Latindexen indexatuta egon arren, meritokrazia-sisteman ez dago puntuazio altua ematen duten aldizkarien artean.

Hala ere, *Uztarok* aurrera dirau, unibertsitate-mailako Zuzenbide eta bestelako Giza eta Gizarte-zientzien arloetako ikerketari bide eta hauspoa ematen. Bejondeiola.